

2010eko DIAGNOSTIKO- EBALUAZIOA

**HOBEKUNTZAN ESKU HARTZEKO AGIRIAK,
EAEko IKASTETXE PUBLIKOEN DIAGNOSTIKO-
EBALUAZIOAREN EMAITZETATIK ABIATUZ.**

**I. IKASTETXEKO TXOSTENA
II. HOBEKUNTZARAKO ESKU HARTZE PLANA**

**IKASTETXEA:
HERRIA:**

KODEA:

IKASTURTEA:

A.- SARRERA

2008ko abenduaren 2ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan diagnostiko-ebaluazioaren prozesua arautzen duenak (abenduaren 9ko EHAA), ebaluazioaren ondorengo jarduerak zehazten ditu 8. artikuluan eta ikastetxeari buruzko txosten bat eta hobekuntzarako esku hartzeko plan bat egitea nabarmentzen dira haien artean, ikastetxeek 2010eko aplikazioaren emaitzak jaso ondoren.

- Ikastetxeek eta ikasleek lortutako emaitzen balorazioa eta analisisa eta haien arrazoiei buruzko hausnarketa egitea ditu **ikastetxeko txostenak** helburu nagusia.
- Jarduteko neurri eta proposamenak, esku hartzeko estrategiak eta oinarrizko gaitasunak hobetzeko eta ikastetxe bakoitzak beharrezkotzat jotzen dituen arrakastarako irizpideak konkretatu eta planifikatzeko balio du **hobekuntzarako esku hartze-planak**.

Agiri honek bi helburu ditu:

- a) Aipatutako txostenak garatzeko lan-prozedura argitzea, eginkizunak zehaztuz eta ikastetxe bakoitzak entregatzeko eta Hezkuntza Ikuskaritzak baloratzeko epeak ezarriz.
- b) Aipatutako *ikastetxeko txostenaren* eta *hobekuntzarako esku hartze-planaren* edukia eta egitura konkretatzea eta tresna praktikoa eta arin bat eskaintzea.

Ondorengo puntuak gogorarazi behar dira:

- Ikastetxeko ikasle bakoitzari, proban parte hartu duten talde-gela desberdinei eta ikastetxeko ikasle guztiei buruzko datu alderatuak ematen ditu diagnostiko-ebaluazioak.
- Diagnostiko-ebaluazioaren datuak ikasturtez ikasturte metatzeak ematen du hobekuntzak eragina izan behar duen alderdiei buruzko erradiografia egoki eta osoagoa. Ikastetxeek aurreko ebaluazioaren emaitzekin konparazioak egin ahal izango dituzte 2010-2011 ikasturte honetan eta, halaber, datu esanguratsuagoak eduki ahal izango dituzte, lehen diagnostiko-ebaluazioaren emaitzetatik aurrera hasitako hobekuntza-prozesuak orientatzeko.
- Erabakiak hartzeari eta esku hartzeko proposamenak konkretatzeari begira daude, funtsean, ikastetxeko txostena eta hobekuntzarako esku hartze-plana gauzatzeko aurrera eramane behar diren prozesuak, ikasle bakoitzari kalitateko hezkuntza-erantzun bat eman ahal izateko eta ikas-prozesuetan arrakasta izan dezaten. Bi ebaluazioen konparazio-emaitzak erreferentziatzat hartuz konkretatuko dira, ikasturte honetan, hobekuntza-ekintzak.

B.- IKASTETXEKO TXOSTENA ETA HOBEKUNTZARAKO ESKU HARTZE PLANA SARTZEN DITUEN AGIRI BAKARRA GARATZEKO LAN-PROZESUA.

2010-2011 ikasturte honetan ikastetxeak egin behar dituen agiriei eta beroriek egiteko prozesuari begira, berrikuntza hauek daude:

- Ikasturte honetan agiri bakarra eskatuko zaio ikastetxeari eta ikastetxeko txostena eta hobekuntzarako esku hartze-plana hartuko ditu agiri horrek.
- 2010ean egindako azken ebaluazioaren emaitzetatik eta 2009-2010 ikasturteko hobekuntzarako esku hartzeko planean erabaki ziren hobekuntza-jardueretatik abiatuz egingo da ikastetxearen analisia. Jarraitzen duten hobekuntza-ekintzak, ezartzeko aldi luzea eskatzen dutelako, eta berriak bereiziko dira.
- Analisi hori eta emaitza akademikoena osagarriak izan daitezke. Prozesu bereziak diren eta elkarren arteko harreman zuzenik ez duten arren, egin beharreko hobekuntzen zentzuari buruzko informazio esanguratsuagoa eman dezakete biek.
- ISEI-IVEIren txostenaren emaitza berriak ikusita, 2009-2010 ikasturteko hobekuntza-ekintza nabarmenen artean zeintzuk geratzen diren indartuta erabakiko du ikastetxeak. Horrela baldintza hobeak izango dira zehaztasunez, objektibotasunez eta era antolatuan hausnarketa egiteko.

Ondoren adierazten dira ikastetxeko txostena eta hobekuntzarako esku hartze-plana sartzan dituen agiri bakarra gauzatzeko ikastetxeak aurrera eraman beharko dituen gutxienezko fase eta lanak. Lan guztiak, diagnostiko-ebaluazioa arautzen duen 2008ko abenduaren 2ko Aginduan oinarritzen dira.

8.1. artikulua: *“erreferentziako ikuskariak bilera batera deituko ditu berritzeguneko erreferentziako aholkularia eta ikastetxe bakoitzeko diagnostiko-ebaluazioaren koordinazio-taldea, emaitzen lehen balorazio bat egiteko eta, ikastetxeak ikastetxeko txostena eta hobekuntzarako esku hartze-plana egin ditzan, behar diren informazio horiek helarazteko”*.

8.2. artikulua: *“diagnostiko-ebaluazioaren probetan lortutako emaitzak aztertu eta, geroago, baloratuko ditu diagnostiko-ebaluazioaren talde koordinatzaileak. Analisi eta balorazio horiek irakasleen klaustroari eta Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari helaraziko zaizkie, haiak aztertu eta hausnarketa egin dezaten. Horretarako, ikastetxeari buruzko txosten bat egingo du, ereduaren arabera”*.

8.3. artikulua: *“geroago, ikastetxean diagnostiko-ebaluazioa koordinatzeko taldeak hobekuntzarako esku hartzeko plan bat egingo du, beharrezkotzat jotzen diren neurri eta hobekuntza-proposamenekin. Plan hori ikastetxearen urteko planean sartuko da”*.

8.4. artikulua: *“berritzeguneko erreferentziako aholkulariak bere gain hartuko du ikastetxeak, ikastetxeko txostena eta hobekuntzarako esku hartze-plana egiteko eta plan horretan proposatutako neurriak gauzatzeko orduan, behar duen aholkularitzaren ardura”*.

8.5. artikulua: *“hobekuntzarako esku hartze-plana eta ikastetxeko txostena erreferentziako ikuskariaren eskura egongo dira eta ikuskari horrek bakoitza baloratzeko txosten bat egingo du. Geroago, proposatutako hobekuntza-neurrien jarraipena egingo du eta jarraipen horren berri emango dio ikastetxeko zuzendaritzari “.*

Funtsezkoa da ikastetxeek, haien koordinazio-egituren bidez eta hezkuntza-erkidegoaren inplikazioarekin, ebaluazioaren emaitzei eta haien puntu indartsu eta ahulei buruz hausnarketa egitea, baita egindako analisiekin bat datozen hobekuntza-jarduerei buruz ere.

1. Hezkuntza Ikuskaritzak berritzeguneko aholkularitzarekin eta ebaluazioa koordinatzeko taldearekin deitu duen hasierako bilera.

Ikastetxean ebaluazioa koordinatzen duen taldeak eta zonaldeko berritzeguneko erreferentziako aholkulariak gutxienez, hartuko dute parte erreferentziako ikuskariak deitutako lehen bileran.

Ahal izanez gero, ikastetxearen ohiko koordinazioaz arduratzen den organoak (batzorde pedagogikoak edo baliokideren batek) koordinazio-taldea osatzea gomendatzen da baina, koordinazio-talde hau oso handia bada, bilerara nortzuk joango diren erabaki beharko du ikastetxeak. Ebaluazioan inplikaturako mailerako tutore bat, gutxienez, gehituko zaio koordinazio-taldeari, organo horretan dagoeneko ez badago, indarreko legeria errespetatzeko. Ikastetxeak beharrezkoa dela uste badu, beste pertsona batzuk, aholkularia esate baterako, ere integratu ahal dira koordinazio-taldean.

Saioa hasi aurretik, 2009-10 ikasturtean egin den hobekuntzarako esku hartze-plana ikastetxearen urteko planean sartu den egiaztatuko du ikuskariak.

Lehen bilera honetan ondorengo lanak egin beharko dira gutxienez:

- Koordinazio-taldea osatu den egiaztatzea.
- Ikasleei buruzko txostenak familiei nola helaraziko dizkien ikastetxeak adieraztea.
- 2010eko diagnostiko-ebaluazioaren emaitzen lehen analisiak.
- Ikastetxeko txostenaren eta ikastetxeak egingo duen hobekuntzarako esku hartze-planaren ildo nagusietara hurbiltzea.
- Ikastetxeko txostena eta hobekuntzarako esku hartze-plana egiteko ikastetxean erabiliko den prozedura finkatzea.
- Ikastetxeko txostena eta hobekuntzarako esku hartze-plana sartzen dituen agiri bakarra aztertzea eta Ikuskaritzan noiz entregatuko den aurreikustea.
- Berritzeguneko aholkulariarekin lan-plana hitzartzea.

Hartutako akordioekin egingo da saioaren akta (taldeak berak, saioaren hasieran, idazkari gisa jarduteko izendatuko du kideetakoren bat). Akta ikastetxean gordeko da. Ikuskariak eta aholkulariak aktaren kopia bana edukiko dute.

2. Ikastetxeko txostena egin eta klaustroari eta OOGri edo Eskola Kontseiluari aurkeztea. Horretarako, zonaldeko berritzegunearen aholkularitza eduki ahal izango da.

Bigarren fase honek, batez ere, hiru ardatz nagusi izango ditu:

- Koordinazio-taldeak emaitzen analisia egin eta egoeraren diagnostikoa egingo du, behar izanez gero, zonaldeko berritzegunearen laguntzarekin. Klaustroari eta OOGri edo Eskola Kontseiluari aurkeztuko dio.
- Ikastetxeko txostena egingo du ikastetxean ebaluazioa koordinatzen duen taldeak.
- Banakako txostenak familiei entregatzearen prozedura, ikastetxeak zehaztuko du.

3. Hobekuntzarako esku hartze-plana egitea. Horretarako, zonaldeko berritzegunearen laguntza eduki ahal izango da.

Hobekuntzarako esku hartze-plana egiteko prozesua izango da hirugarren fase honen ardatza. Izan ere, ikastetxeko txostenean egindako hausnarketatik abiatuz, plan horrek hartutako erabakiak eta jardun eta hobetzeko proposamenen selekzioa eta lehentasuna sartu beharko ditu. Zonaldeko berritzegunearen aholkularitza eta laguntza eduki ahal izango da fase honetarako eta ondorengo lanetan zentratuko da batez ere:

- Jarduteko proposamenak hezkuntza-erkidegoko kideen artean jasotzea.
- Proposamenei lehentasuna eman eta haien garapenaren denboralizazioa.
- Ikastetxeko txostena eta hobekuntzarako esku hartze-plana egin eta entregatzea.
- Proposatutako neurriak ikastetxearen urteko planean sartzea.

4. Hezkuntza Ikuskaritzaren balorazioa eta jarraipena.

Erreferentziako ikuskariak, ikastetxe bakoitzak bidaliko duen ikastetxeko txostena eta hobekuntzarako esku hartze-plana baloratuko ditu eta plan horretan agertzen diren esku hartzeko proposamenak praktikan nola jartzen diren kontrolatuko du eta kontrol horren jarraipena lan egiteko planean sartuko du.

**C.- AGIRI BAKARRA, IKASTETXEKO
TXOSTENA ETA HOBEKUNTZARAKO ESKU
HARTZE PLANA SARTZEN DITUENA,
ENTREGATZEKO EGUTEGIA.**

- Ikastetxeko txostena eta hobekuntzarako esku hartze-plana sartzen dituen agiri bakarra **2011ko otsailaren 18a** baino lehenago bidaliko zaio Hezkuntza Ikuskaritzako Lurralde Burutzari balorazio-txostena egiteko. Hezkuntza Ikuskaritzak **2011ko martxoaren 25a** baino lehenago bidaliko dio balorazio-txostena ikastetxe bakoitzari.

D.- IKASTETXEKO TXOSTENAREN EDUKIA ETA EGITURA

- Atal honetan egiten diren eta hobekuntza-ekintza eta proposamenak aurreikusiz bukatzen duten analisia eta diagnostikoa, ikastetxeak esku hartzeko ahalmena duen arlo edo alderdi horietan zentratu behar dira. Ikastetxearen alderdi orokorrei buruzkoak izango dira hobekuntza-ekintza eta proposamen horietako batzuk; beste batzuk, ordea, irakasleen aldetik arreta berezia eskatzen duten ikasle konkretuei buruzkoak izango dira.
- Batzuetan, ebaluazioaren emaitzen azterketek, 2009-2010 ikasturteko hobekuntzarako esku hartze-planaren hobekuntza-jardueren argitan, nahiko informazio emango dute, hobekuntza-ekintza berriak konkretatu ahal izateko. Beste batzuetan, aldiz, begibistako aurreko informazioak ez dira nahiko izango eta, horregatik, ikastetxeak, diagnostiko-ebaluazioaz gain, beste tresna batzuk erabiltzea komeni da, datu osagarriak emango dizkietenak.

Ikastetxeako txostenak **4 atal** izango ditu:

1) *Txostenen emaitza.*

Lortutako emaitzen azterketa eta balorazioa eta emaitza horietan eragin dezaketen arrazoiei buruz hausnarketa egitea ditu azterketa horrek helburu nagusiak. Askotan arrazoi bat baino gehiago lotzen zaio emaitza zehatz bati.

Hobekuntzaren aldeko ikuspegiak hobetu daitezkeen eta ikasleek lortutako emaitzetan eragin zuzenagoa duten ikastetxearen eta gelen funtzionamenduaren alderdi horiek zehaztearekin du zerikusia.

Analisi hau garatzeko eta emaitzak baloratzeko bi tresna, besteak beste, erabili daitezke:

- a) ISEI-IVEIk *“emaitzei buruzko txostena interpretatzeko orientabideak”* agirian entregatutako lan-proposamena.
- b) Emaitzen balorazio global batera eramaten duen gai orokorren gidioa. Gidoi horretan, Ikastetxeako txostenaren atal desberdinetan agertzen diren galderak sar daitezke.

2) *2009-2010 ikasturteko hobekuntzarako esku hartze-planaren hobekuntza-jardueren jarraipena.*

2009-2010 ikasturtean egin den hobekuntzarako esku hartze-planaren hobekuntza-jardueren jarraipena egin nahi da atal honetan, baita 2010-2011 ikasturterako ikastetxearen urteko planean sartu ziren hobekuntza-jardueren artean zeintzuk, eskuratutako emaitza berrien argitan, hartu duten indarra zehaztea ere. Halaber, behar diren hobekuntza-neurri berriak zehaztu behar dira.

3) Egoeraren emaitzen eta diagnostikoaren arrazoiak: puntu indartsu eta ahulak.

Eskuratutako emaitzetan eragin dezaketen arrazoen diagnostiko bat egitea, indartu nahi diren ikastetxearen puntu indartsuak konkretatzea eta puntu ahulak edo hobetu behar diren atalak zehaztea dira atal honen helburuak. Lan hau egiteko, **hiru gaitasun mailen azalpenari buruzko ikastetxearen hausnarketa-** baita, ematen direnean, dimentsioei buruzkoa ere-, **ISEI-IVEIren txostenak konkretatzen duena**, oso lagungarria izan daiteke. Material hauek maila bakoitzari lotutako gaitasunei buruzko informazio zehatzak eskaintzen dituzte eta, horregatik, taldeek eta ikasleek gaitasun horiek zein mailatan eskuratu dituzten zuzenago zehaztu dezake ikastetxeak.

Oro har, puntu indartsu eta ahulen diagnostiko egokia egiteko, beste tresna orokor batzuk erabili beharko dira, diagnostiko-ebaluazioaz gain.

Oso inportantea da irakasleen aldetik arreta berezia eskatzen duten **banakako egoerak antzematea**. Ikasle hauek ikastetxean izan duten ibilbideagatik erreferentziak izango dira. Hala ere, beste kasu batzuetan gerta daiteke ikasle batzuek espero zen maila gainditu ez izana, edo gainditu izana. Irakasleek kasu horietan ere egin behar dute hausnarketa.

4) Gerta daitezkeen jardueren hasierako aurreikuspena eta hobekuntza-proposamenak.

Eskuratutako emaitzen arrazoiari buruz, puntu indartsu eta ahulak antzemateari buruz eta 2009-2010 ikasturteko hobekuntza-jarduerari buruzko hausnarketaren ondorioz, hobekuntza-elementuak eta esparruak sortuko dira eta haien inguruan artikulatuko da etorkizunari begirako *hobekuntzarako esku hartze-plana*.

Emaitzak aztertu eta baloratzeko prozesuan etengabe sortu diren hobekuntza-esparruak, eta ez besterik, adierazi beharko dira *ikastetxeko txostenaren* azken atalean. Hobekuntza-esparruak ondo aukeratzea komeni da, ikastetxe bakoitzaren benetako aukeren arabera, eta lehentasuna eman behar zaie. Horri esker, ikastetxeak, geroago, hobekuntzan noraino hartuko duen esku erabakiko du.

Hobekuntza-jardueretan eta proposamenen hasierako aurreikuspenetan, egindako diagnostikoaren ondorioz, irakasleen aldetik arreta berezia eskatzen duten ikasleak sartuko dira.

Ikastetxeko txostenak egiteko tresna jarraian aurkezten da.

I. IKASTETXEKO TXOSTENA

IKASTETXEA:
HERRIA:
IKASTURTEA:

KODEA:

- Ikastetxeko txostenaren alderdi desberdinetan, ondorengo helburuak dituzten galderak egiten dira: diagnostiko-ebaluazioaren azterketari laguntzea, puntu indartsu eta ahulak zehaztea eta hobekuntza-jardueren eta proposamenen hasierako aurreikuspenari buruz erabakitzea. Ikastetxearen, haren gelen eta ikasleen ebaluatutako gaitasunen analisisen proposamen eta ondorio guztiak testuinguruan sartu behar dira

1º.- EMAITZEN ANALISIA.

Ebaluatutako gaitasun desberdinetan baloratuko dira emaitzak.

Ikastetxearen emaitza globalak eta talde bakoitzarenak, ikastetxeak, espero zuen tokian al daude ISECaren arabera? Eta ebaluatutako gaitasunen emaitzak? Taldeen arteko desberdintasunak ba al daude? Talderen batek, gainontzekoekiko ezberdintasun nabarmenak al ditu? Gaitasunen bat?

Desberdintasunak badaude, zergatik gertatzen dira? Zeintzuk dira lortutako emaitzen alderdi esanguratsuenak?

Gizarte-, ekonomia eta kultura egoera bereko beste ikastetxe batzuekin, hezkuntza-sarea + hizkuntz eredua, alderatua, behar den maila lortzen al dute ikastetxearen emaitzek?

Espero ziren ISECaren emaitzak eta azken atal honetakoak aztertu ondoren, ondorioak atera al daitezke?

Ebaluatutako oinarritzko gaitasun bakoitzean lortutako emaitzen balorazio espezifikoa.

ISEI-IVEIk emandako txostenean zehazten diren gaitasun bakoitzerako hiru mailak eta hauen dimentsioei buruzko ikastetxearen hausnarketa, oso lagungarriak izan daiteke balorazio hau egiteko.

Gaitasunen batean sistematikoki lortzen al dira gainontzekoetan baino emaitza txikiagoak edo handiagoak? Zergatiei buruzko hipotesirik egin al daiteke?

a) Euskarazko hizkuntza- komunikaziorako gaitasuna:

b) Gaztelaniazko hizkuntza- komunikaziorako gaitasuna:

c) Matematikarako gaitasuna:

d) Gizarterako eta Herritartasunerako Gaitasuna:

Aldeak ba al daude ebaluatutako talde desberdinen emaitzen artean? Ba al dago sistematikoki beste batzuek baino emaitza txikiagoak edo handiagoak lortzen dituen talderik? Ba al dago ikastetxearen hezkuntza esku-hartzean desberdintasun hauek justifikatzen dituen arrazoirik? Zergatik gerta daitezke desberdintasun horiek?

2009ko eta 2010eko diagnostiko-ebaluazioen emaitzak konparatuz gero, zein ondorio atera daiteke?

2º.- 2009-2010 IKASTURTEKO HOBKUNTZARAKO ESKU HARTZE-PLANAREN JARDUEREN JARRAIPENA.

2009/10 ikasturteko hobekuntzarako esku hartze-planetik, zein ekintzak mantenduko dira? Zeintzuk galtzen dute balioa? Ikastetxeak esku hartzeko ahalmena duen arlo edo alderdiak azpimarratu.

3º.- EGOERAREN DIAGNOSTIKOA: INDARGUNEAK ETA AHULEZIAK.

Ebaluatutako gaitasun desberdinen emaitza globalen analisitik eta joan den ikasturteko emaitzekin egindako konparaziotik abiatuz,

Zein puntu indartsu identifikatuko zenituzke mantentzeko?

Zein puntu ahul identifikatuko zenituzke hobetzeko?

Lortutako emaitzak argitu ditzakeen edo ditzaketen arrazoiaren edo arrazoen azterketa.

Ikastetxeak esku hartzeko ahalmena duen arlo edo alderdiak azpimarratu.

4º. EGIN DAITEZKEEN HOBEKUNTZA-JARDUEREN ETA PROPOSAMENEN HASIERAKO AURREIKUSPENA.

Zeintzuk dira egindako diagnostikotik eratorzen diren hobekuntza-ekintzak? Zeintzuk dira jarraitzen duten aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzak? Zeintzuk dira gehitzen diren hobekuntza-ekintza berriak?

Ondorengo taulan lehentasuna eman:

1. hobekuntza-ekintza: _____
2. hobekuntza-ekintza: _____
3. hobekuntza-ekintza: _____
4. hobekuntza-ekintza : _____

-----(-e)an aurkeztu/aurkeztuko zaio Ikastetxeko txostena Klaustroari eta-----
----(-e)an OOGri/Eskola Kontseiluari.

Zuzendariaren zigilua eta sinadura
Data

E.- HOBKUNTZARAKO ESKU HARTZE PLANAREN EDUKIA ETA EGITURA.

Ikastetxeko txostenean antzeman diren hobekuntza-proposamenak dira *hobekuntzarako esku hartze-planaren* abiapuntua. Proposamen horietatik abiatuz, eta hausnarketa zehatza egin ondoren, esku hartzeko eta jarduteko proposamenak selekzionatzeko, lehentasunak emateko eta planifikatzeko prozesuan zentratu beharko da.

Esku hartzeko Plan honek bi atal ditu:

1) Esku hartzeko eta hobekuntzarako proposamenak selekzionatzea eta lehentasuna ematea.

Ikasleek lortutako emaitzak hobetzeko eragin handiena izan dezaketen hobekuntza-ekintza horiek aukeratzea gomendatzen da:

Lan hau egiteko irizpide orokor gisa, ondorengoak hartu beharko lirateke kontuan:

- Funtsezkoa denari, eta ez bigarren mailakoari, lehentasuna ematea.
- Eragin handiagoa eta neurtuak eta ebaluatuak izateko aukera gehiago dituzten ekintzak aukeratzea.
- Irakasle kopuru handi bat hartzen duten eta beraiei eragiten dieten lan-proposamenak selekzionatzea.
- Hezkuntza-komunitatearen adostasun zabala duten jardueri lehentasuna ematea.
- Hobekuntzen egonkortasuna bermatzea.

Ekintza edo hobekuntzarako esku hartze-proposamen horiek ikastetxearen bizitzaren esparru desberdinei eragingo diete:

- *Curriculum-garapenaren eta garapen metodologikoaren esparrua*; hots, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari, gelako irakaskuntza-praktikari, baliabide eta material didaktiko eta teknikoei eta ebaluatzeko irizpide eta tresnei eragiten diena.
- *Antolaketa eta funtzionamendu-esparrua*, irakasle-taldeko koordinazioari, taldekatzei, orduen antolaketari edo funtzionamendu-arauei lotua.
- *Komunitate-esparrua*, ikastetxean dauden harremanekin eta elkarbizitzarekin eta ingurunearekiko eta familiekiko harremanekin zerikusia duena.
- *Garapen profesionalaren edo prestakuntzaren esparrua*, irakasle-taldeko prestakuntza-premiei eta premia profesionalari lotuak.

2) Hobekuntza-jardueren plangintza.

Ondorengo puntuak konkretatuko dira hobekuntza-ekintza edo proposamen bakoitzerako:

- Egin beharreko lan edo jarduerak.
- Lortu beharreko helburuak.
- Ekintzaren arduradunak.
- Denborak (jarduerak epe motz, erdi eta luzera bereiziz).
- Behar diren baliabideak.
- Ebaluazioa: jarraipen-adierazleak (prozesuan zehar emaitzak neurtzen dituzte) eta lorpen-adierazleak (azken emaitzak neurtzen dituzte).

Ondoren aurkezten da *hobekuntzarako esku hartze-planak* gauzatzeko tresna.

II. HOBEKUNTZARAKO ESKU HARTZE PLANA

IKASTETXEA:
HERRIA:
IKASTURTEA:

KODEA:

1. HOBEKUNTZA-EKINTZAK SELEKZIONATZEA ETA LEHENTASUNA EMATEA

HOBEKUNTZA-EKINTZA (1)(*)	Lotura duen OINARRIZKO GAITASUNA	ESPARRUA (3)	LEHENTASUNA (4)

HOBEKUNTZA-JARDUEREN PLANIFIKAZIOA

EKINTZ A	Atazak edo jarduerak (5)	Lortu beharreko helburua (6)	Ekintzaren arduraduna/k (7)	Denborak (8)	Baliabideak (9)	Ebaluazioa (10)	
						Jarraipenaren adierazleak	Lorpenaren adierazleak
1.							
2.							
3.							
4.							
5.							
...							

Hobekuntzarako esku hartze-plan hau ikastetxearen Klaustroak -----(-e)an onartutako urteko planean sartu da eta, -----(-e)an aurkeztu zaio OOGri/Eskola Kontseiluari.

Zuzendariaren zigilua eta sinadura
Data

GLOSARIOA ETA TERMINOEN AZALPENA:

(*) Asteriskoa jarri behar da jarraitzen duten eta 2009-2010 ikasturtetik datozen ekintzetan.

(1) Aurrera eraman behar den hobekuntza-ekintzaren proposamena enuntziatzea, ahal izanez gero infinitiboan.

(2) Ebaluatutako 5 gaitasunetako bat edo batzuk.

(3) E)1-ean agertzen diren lau esparruetako edozein.

(4) Ekintzaren garapenaren arabera: berehalakoa, epe erdira edo epe luzera.

(5) Proposatutako ekintzarekin zerikusia duten ataza edo jarduera konkretuei buruzkoa.

- Ekintza bat ataza edo jarduera desberdinetan konkreta daiteke. Kasu honetan, ataza edo jarduera guztiek ekintza nagusiarekin izango dute zerikusia.
- Ikasteko prozesuak (kurtsoa, zikloa, maila...) edota irakastekoak, baita erabakiak hartzeko irakasleen koordinazioa ere, hobetzera zuzenduta dagoen adieraziko du ekintzak: materialen egokitzapena, lanaren antolaketa, egoera baten diagnostikoa, irakasleen prestakuntza...etab.

(6) Helburua neurtu eta lortzeko modukoa izango da eta era zehatzean formulatuko da.

- Funtsean, ikasleek ikasteko prozesuaren alderdi bat hobetzeko definituko da helburua baina irakaskuntzaren beste helburu batzuei ere aurre egin diezaieke, erabakiak hartzeko irakasleen hausnarketari eta koordinaziori lotutakoei esate baterako.
- Helburu bat definituko da ataza edo jarduera bakoitzerako, jarduera bereko beste lan batzuenarekin bat etor daitekeen arren.

(7) Ekintzaren arduradun edo koordinatzaileak pertsona edo kolektibo bat izan daitezke.

- Irakasle batzuk jarduera batean arduradun gisa agertzen badira, ekintzaren arduradun bakarra zehaztea komeni da. Irakasle arduradunak ekintzaren garapena eta ezarpena jarraituko ditu: esleitutako denborak betetzen diren, planifikatutako baliabideak lortu edo praktikan jarri diren...

(8) Ekintza bakoitzerako denbora konkretatu behar da.

- Denborak ekintzaren hasiera, bukaera eta maiztasuna markatuko ditu.

(9) Ahal izanez gero, ikastetxeak dituen baliabideak planteatu behar dira.

- Baliabideak aukeratutako helburua lortzera bideratuta egongo dira.
- Baliabide bakoitza konkretatzea eta era abstraktuan ez formulatzea inportantea da. (Adibidez: “Matematiketako 20 oinarrizko buruketen bilduma bat biltzea “, “Matematiketako buruketak biltzea “ esan beharrean).

(10) Lorpenaren adierazleak ekintza bakoitzaren azken helburua lortzearekin lotuta daude eta lortu nahi den azken mugarrira markatzen dute; jarraipenaren adierazleak, aldiz, mugarririk ez dituzten adierazleak dira eta ataza edo jardueraren planifikatu zen moduan betetzen ari den zehazteko balio dute.

- Lorpenaren eta jarraipenaren adierazleak ahalik eta konkretuen formulatuko dira. Adibidez: “% 20ko gehikuntza du liburutegian maileguan utzitako liburuen kopuruak “.